

Gizarte eta Giza Zientzien Fakultatea Deustuko Unibertsitateko zentro bat da. Zentroaren helburua gizartearen eraldaketan, inklusioan eta justizia sustatzen laguntzea da, beste batzuekin lankidetzan, pertsonen prestakuntza integralaren, gizarte eta giza zientzien diziplina arteko esparruetako ikerketaren eta transferentziaren /intzidentziaren bitartez.

Bereziki, Gizarte eta Giza Zientzien Fakultateko xedeak hauek dira:

- a) Gizarte eta giza zientzietako jakintza transmititzea, esparru horietan gizartea aldatzeko pertsonak prestatuz, bakoitzak bere lanbidetik lan eginez.
- b) Jakintzaren mugak zabaltzea, gizarte eta giza zientzia ugarietan ikerketa eginez, erantzukizunez, diziplina ugariko ikuspegitik eta ikuspegi kritikotik.
- c) Gizartearen eraldaketan eragitea, bizitzan zeharreko prestakuntzaren bidez eta ikerketaren transferentzia aplikatuaren bidez, gizarte, politika eta ekonomia arloetako eragile publiko eta pribatuekin batera.
- d) Kristau inspirazioa goiargi harturik eta inklusioaren baliotik abiatuta, kulturen arteko edo identitateen arteko bizikidetzak sustatzea askotariko gizartean, fedearen eta kulturaren arteko eta erlijioen arteko elkarrizketa txertatuz.
- e) Euskal kultura berariaz sustatzea, testuinguruan sustraitua, ikuspegi unibertsalari irekia, tokiko gure errealitatearekiko konpromisoa gogoan harturik.
- f) Pertsonen elkartea eratzea, unibertsitateko berariazko zereginetan taldean lan eginez, giza eskubideak sustatu eta mundu osoan justizia izan dadin lan egin dezaten.

Printzipio horietatik abiatuta, Fakultatearen 2020/2023rako plan estrategikoa lehenetsuneko hiru helburutan oinarritzen da:

1. Prestakuntza eskaintza dibertsifikatu eta koherentea garatu eta ezartzea Unibertsitatearen Misioarekin eta lehenetsun estrategikoekin eta 822/2021 Errege Dekretuarekin bat (2021eko irailaren 28koa unibertsitate irakaskuntzen antolaketa eta kalitatea ziurtatzeko prozedura ezartzen dituen, bai eta unibertsitatearen jarraibideak ere, titulazioen bideragarritasunari dagokionez).
2. Fakultateko ikerketaren arloan diziplinarteko eta sektore anitzeko lankidetzak sustatzea, lan prozesu berrien eta antolaketa aldaketaren bitartez.
3. Fakultateko errealitate ezberdinetara egokitzen den gobernantza sistema diseinatu eta ezartzea.